

Lodosan, 2001.eko urriaren 19an

J. Haritschelhar, euskaltzainburua,
H. Knörr, buruordea,
P. Goenaga, idazkaria,
J. A. Arana Martija, diruzaina,
B. Oihartzabal, Iker sailburua,
A. Urrutia, Jagon sailburua,
P. Charritton,
J. L. Davant,
A. Eguzkitza,
A. Iñigo,
X. Kintana,
E. Larre,
J. M. Lekuona,
F. Ondarra,
Tx. Peillen,
J. San Martin,
Eta J.M. Satrustegi
euskaltzainak
eta J. L. Lizundia, idazkariorde-
kudeatzailea eta
J. J. Zearreta, ekonomia eragilea

Lodosako udaletxean, 2001eko urriaren 19an bildu da Euskaltzaindia hileroko batzarra egiteko. Goizeko hamarrak laurden gutxitan ekin diote lanari euskaltzainek. Ezkerreko zutabeen jasorik ageri dira bilduen izenak. Ezin etorria adierazi dute Patxi Altunak, Miren Azkaratek eta Pello Salaburuk.

Aurreko batzar-agiria onartzea

Oharrik ez zaio egin eta, horrenbestez, ontzat eman da iraileko bilkurako agiria.

1. Hizkuntza arauak.

1.1. Onomastika: Nafarroa Behereko Herri Izendegia-ren lehen zerrenda (Gaziko eskualdeari dagokiona) aurkeztea.

Patxi Salaberrik prestatutako lana dela adierazi du Andres Iñigo Onomastika batzordeburuak. Lanaren aurkezpena egin du. Batetik zerrenda doa eta bestean dokumentazioa.

Lizundia jaunak ere zenbait argitasun eman ditu: lehen onartu zen zerrenda behin behinekoa izan zen. Dassanceren zerrenda zen, funtsean. Orain datu gehiagorekin, proposamen hau egiteko moduan da Onomastika batzordea. Bestalde, bi forma ere izan daitezke zenbaitetan. Bi forma bizi direlarik, zaharrena atxiki behar litzateke.

Oharrak egiteko epea hilaren 20a ezarri da. Zerrenda landu duena bera ere ezta-baida garaian gotea onartu da.

1.2. Hiztegi Batua: agi-ahozuri zerrenda onartzea

Aurreko bilkuran Urrutia jaunaren oharrak aztertzeari ekin bai baina bertan behera utzi ziren, Azkarateren oharrak ez baitzuten. Orain atzera hartu dituzte azterkizun euskaltzainek oharrak:

Agindu: agindu(-)emaile sartzeari onartu da. Azpisarrera gisa: (-en) agindu(eta)ra ematea onartu da. Honako esapide hauei ere leku egitea onartu da: agindu(eta)ra egon/jarri.

Aginduzko: 'nahitaez bete beharrekoa' gehituko zaio adiera gisa, eta *aginduzko araua* adibide gisa. Bigarren adiera bat ere emango da: 'hitz emandakoa', adibide bezala *aginduzko zina* sartuz. Hemen ere oinarrian dagoen agindu aditzak berezko duen anbiguotasun bera dago.

Aginduzkotasun: ohargileak berak erretiratu du.

Aginean: 'zorian' adiera gehituko zaio.

Agintatu: zerrendatik kentzea eskatzen du ohargileak. Hala onartu da.

Aginte: *aginte(-)perpau*, *aginte(-)mahai* eta antzeko azpisarrereri leku egitea eskatzen du ohargileak. Ez da horren premiarik ikusi eta azpisarrerarik ez gehitzea erabaki da.

Agintekeria: *autoritarismo*-ren ordain egokia izan litekeela uste du ohargileak. Beste zenbaitek horren beharrik ez dute ikusten. Botoetara jo da: sartzearen alde agertu dira 13 euskaltzain. Bik zuri bozkatu dute. Horrenbestez, sartzea onartu da.

Agirakatu: aditzei dagokien bezala, adizki nagusiak ere ematea onartu da. Beraz, *agirakatu*, *agiraka(tu) agirakutzen*.

Agnatu: ez da sartuko.

Agoa: adiera gisa 'sutegian urtutako burdin-zatia' ematea onartu da.

Agor: Izenondoa eta izena bereiztea onartu da. Horrenbestez, 1. izond. *Iturri agorra*; 2. iz. 'lehortea' ezartzea onartu da.

Agor(-)liho marratxoarekin emango da.

Ezin agortuzko azpi sarrerari leku egiteko eskaria ez da onartu, sintaxi-egitura emankorra delako. Gainera, dagoeneko onartua dago *Hiztegi Batuan ezin*-en azpian. Beste arazo bat litzateke *ezinikusi*, *ikusezin* eta horiena, hauek hitz elkartuak baitira. Hauei leku egin dakieke hiztegian. Bi kontu desberdina dira.

Agrabio: "etab." kentzea eskatzen du ohargileak. Onartu da eta honela geratuko da, horrenbestez: *agrabio** e. irain, laido.

Agradatu: zein erregimen duen adierazteko eskaria egiten du ohargileak. Onartu da eskaria. *zaioda* izango litzateke erregimen hori. Adibide gisa honako hauek emango dira: *Jainkoari agradatzen zitzaion tenplua* eta *hartaz agradatu zen*.

Agrobiologia, *agrokimika*: oraingoz ez sartzea erabaki da. Aurrerago, *bio-*, *agro-*, *eko-*, eta abarrekin zer egingo den erabaki beharko da. Hori izango da teknika gaietako hitzak aztertze osatu zen lantalde berezi haren eginkizuna.

Aguaziltxo: hitz hau sartzeko proposamena erretiratu egin du ohargileak.

Agure: hitzen honen azpisarrera gisa proposatu dituenak erretiratu egin ditu ohargileak berak.

Agurzale ere erretiratu egin du.

Ahaide: ahaide nagusi azpisarrera gisa ematea eskatzen du ohargileak. Eztabaida sortu da sartzeari komeni den ala ez eta nola idatzi behar den. Hurrengorako txosten txiki bat ekarriko du Urrutia jaunak.

Ahakarkizun: ez sartzeari erabaki da.

Ahal: *ahal beste* azpisarrera sartzeari onartu da.

Ahaldun: azpisarrera modura *ahaldun nagusi* sartzeari eskatzen du ohargileak. Jose Luis Lizundia jaunak ekarriko du hurrengorako txostena.

Ahaldundu: ohargileak hitz egokia dela uste du Zuzenbidearen esparrurako. Gai horietaz proposamena egin behar duen lantalderako utzi da.

Ahalgo: sartzeari onartu da 'kemena' adiera duela esanaz. Adibide gisa, honako hau ematea onartu da: *adinarekin ahalgoak joan zaizkit*.

Ahalik: honen parean *ahalik eta* ere ematea onartu da.

Ahalorde: hitz honi leku egiteko eskariarekin dator ohargilea. Eztabaida txiki bat sortu da duen adierari buruz. Urrutiak ekarriko duen txostenaren zain utzi da erabakia.

2. *Eskuartekoak*

Literatura sarietako epaimahaiak.

Joan Mari Lekuonaren esku utzi da epaimahaiak osatzeko kontua. Urriaren 16an amaitu da lanak aurkezteko epea. Lan batzuk Euskaltzaindiaren egoitzan jaso dira. Beste batzuk BBK-n. Denak bilduko dira eta hurrengo ostiralean Literatura batzordearen esku utziko da kontua.

Azpeitiko udalaren gonbita.

Abenduaren bian, euskararen nazioarteko eguna ardatz hartuta, Azpeitiko udalak ekitaldi berezi bat antolatu du. Onartu berri du Azpeitiak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia. Plan horren abiapuntu gisa antolatu den ekitaldian bi euskaltzain azpeitiarrei, Patxi Altunari eta Patxi Goenagari, omenaldi bat eskainiko zaie. Hori dela eta, euskaltzainak ere gonbidatu nahi izan ditu Azpeitiko udalak. Joateko asmoa dutenek asmo horren berri eman behar dute.

Bi gutun

Euskaltzainburuak jasotako bi gutunen kopiak eman zaizkie euskaltzainei, jakinaren gainean egon daitezzen: bata, RIEV-en P. Goenagak Euskaltzaindiak idatzitako artikulua dela eta, Onomastika batzordeak aurkeztu duen kexua da. Besteak, Pegenaute jaunak Euskaltzaindiarekiko hitzarmen berri bat egiteko proposamena jasotzen du.

Nafarroako gobernuarekikoak.

Nafarroako Gobernutik iritsitako azken gutunari erantzuteko Zuzendaritzan onartutako testua aurkeztu da eztabaidarako. Testua onartuz gero, Pegenaute jaunari helaraziko zaio. Eguzkitza jaunak euskaraz ere bidaltzeko eskatu du. Baietz erantzun zaio.

Zenbait galdera eta iruzkin egin ondoren, testua onartu da.

Satrustegi jaunaren ustez, paperekin atzera eta aurrera ibiltze hori utzi egin beharko litzateke. Haren proposamena da gutuna bidali ordez, batzorde bat izendatzea eta aurrez aurreko elkarrizketa eskatzea. Horrela, eskura emango litzaioke dokumentua eta hitz eginez arazoa konpontzen saiatuko. Urrutia jaunaren aburuz, inportanteena Nafarroarekin loturak ez haustea da.

Proposamena onartu da. Andres Iñigo eta Andres Urrutia izendatu dira proposatzen den bilkura horretako solaskide. Berehala eskatuko da hitzordua.

Oihartzabal jaunak *Atlasa* argitaratzea luze joango dela ikusten du. Beraz, eskatzen du gutun bat egitea, euskaltzainburuak sinatua, lanean jardun duten batzordekideei gauzak nola diren esanaz. Ontzat eman da. Dena dela, Haritschelhar jaunak galdezen du ea noiz arte luzatuko den kontu hau.

Ordu bietan bukatu da bilkura.

Euskaltzainburuak
Jean Haritschelhar

Idazkariak
Patxi Goenaga